



## ORDIZIAKO AGENDA 21



**ORDIZIAKO EKINTZA PLANA 2010-2020**

**Behin\_betikoa\_2010/06/08**

**Izenburua / Título:** Ordiziako Ekintza Plana 2010-2020

**Egileak / Autores:** LAIA S.COOP.

**Hartzaileak / Destinatarios:** / Ordiziako Udala

**Proiektuaren hasierako data / Fecha de comienzo del proyecto:** 2009ko azaroa

<b>Bertsioen historia /</b>	<b>Bertsioa / Versión</b>	<b>Data / Fecha</b>	<b>Ekintza / Acción</b>	<b>Oharrak / Notas</b>
<b>Historial de las versiones:</b>	Ordiziako Ekintza Plana_2010-2020_behin_betikoa	10/06/08		

## AURKIBIDEA

<b>SARRERA ETA AURREKARIAK</b>	4
<b>2020rako IKUSPEGIA ORDIZIAN: ERRONKA NAGUSIAK</b>	7
<b>EKINTZA PLANA</b>	8
Ekintza Planaren Egitura	8
Ekintza Planaren oinarrizko ezaugarriak	9
Lerro estrategikoak, Programak eta Ekintzak	10

## SARRERA ETA AURREKARIAK

### ORDIZIA ETA IRAUNKORTASUNAREN ALDEKO KONPROMEZUA: TOKIKO AGENDA 21.

Ordizia 2003. urtean hasi zen Agenda 21aren inguruan lanean *Udaltalde 21 Goierri* deritzonaren barruan. Udaltalde honetan, Ordiziarekin batera eskualdeko beste hamazazpi udalerrik lan egin zuten Agenda 21aren diseñu fasea garatuz metodologia bateratu bat erabiliz. Lehen prozesu horren emaitza moduan sortu zen, *Ordiziako Agenda 21eko Ekintza-Plana*: iraunkortasunaren bidean Ordizian aurrera eraman beharreko ekintza ezberdinak jasotzen zituen dokumentua.

### TOKIKO AGENDA 21EN EBALUAZIOA ETA JARRAIPENA

MUGI 21 izeneko tresnaren bidez Udalsarea osatzen duten *EAEko udalerrietako Tokiko Agenda 21ak Ebaluatu eta Jarraitzeko 3. programaren* barruan (2008) Ordiziako Ekintza Planaren ebaluaketa eta jarraipena egin da. Programa honek bi atal ditu: ebaluazioari dagokiona eta adierazleen kalkuluari dagokiona.

1. **Ebaluazio programa:** GFA-aren bitartez Ekintza Planaren exekuzio maila neurtzen da. Honen jarraipena egin ondoren ebaluazioaren emaitzak aurkezpena egiten zaie udal ordezkariari.
2. **Adierazle programa:** Eusko Jaurlaritzak IHOBEn bidez Ekintza Planarekin ezarri ziren helburuak bete diren neurtzen du urtero, iraunkortasu- adierazle sistema baten bitartez.

Ebaluazio programaren emaitzak honela laburbidlu daitezke (GFA-ko 2008ko ebaluaketa programa\*):

- EP-a **%37an ezarri da** (EAEko batzbestekoen maila berean).
- Ezartze maila altuenekoak: garapen industrial eta herri bizitza (gizarte gaiak).
- Ezartze maila ertaina: Hirigintza iraunkorra eta sentsibilizazio/komunikazioa.
- Ezartze maila baxua: baliabide naturalen kudeaketa.

\*GFAko 2008ko ebaluaketa txostenean ikus daitezke emaitza guztiak bere osotasunean

## EKINTZA PLANAREN EGUNERAKETA

Lau urte baino gehiago igaro dira Ordiziako Udaleko Udaltzaren 2006an Agenda 21eko lehenengo Ekintza-Plan hura onartu zuenetik. Ordudanik hainbat ekintza burutu badira ere, Gipuzkoako Foru Aldundiko 2007ko Ekintza-Planen Ezarpen mailaren Ebaluazioan agertzen denez, Ordizian Ekintza-Planaren exekuzio-maila orokorra %37koa da eta onartu ziren ekintzen %17 oraindik hastear daude. Honek, ekintza-planaren inguruko hausnarketa eta **eguneraketa burutu beharra** erakusten du.

### Helburuak

Prozesu honekin lortu nahi diren helburuen artean honako hauek nabarmendu ditzakegu:

- Ordiziako errealitatera egokitu eta Ordiziako Udalak kudeaketa mailan dituen beharrak asetuko dituen plan bat definitzea.
- Herriaren ingurumen mailako garapenera egokituko den plan bat definitzea: iraunkortasunaren kudeaketan egon diren lege eta metodologia garapenak kontutan hartuko dituen.
- Udala osatzen duten teknikari eta politikari ezberdinentzat eredu izango den plan bat garatzea.

### Lan programa

Sintesi diagnostiko hau burutzeko, Ordiziako Udalarekin lehenik eta behin prozesuaren enfokea definitu da: ekintza-plan berriak jaso beharreko gaiak zehaztuz, prozesuko parte hartzaileak zehaztuz eta komunikazio eta herritarren partehartze mailako ekimenak zehaztuz.

Ondorengo urrats batean, beharrezko oinarritzko informazioa bildu da. Informazio bilketa honetarako, batetik, udalak dauzkan azterketa eta plan ezberdinak erabili dira (Agenda 21eko Ebaluazio txostena, Iraunkortasun Adierazleak, Arau Subsidiarioak, Mugikortasun Plana, etab.) eta bestetik, udaleko teknikari ezberdinekin eginiko elkarrizketetatik ateratakoak jaso dira.

Informazio guzti hau bilduta, Sintesi-Diagnostikoa landu da. Diagnostiko honetan gai ezberdinen inguruko egoera modu erraz, ulergarri eta grafiko batean jaso da.

Ekintza Plan berria diseinatzeko, Ordiziako Udalarekin lehenik eta behin prozesuaren enfokea definitu da: ekintza-plan berriak jaso beharreko gaiak zehaztuz, prozesuko parte hartzaileak zehaztuz eta komunikazio eta herritarren partehartze mailako ekimenak zehaztuz.

Ekintza Planean garrantzi handikoak izan diren hainbat iturri ere kontutan hartu dira:

- 2006ko Ekintza Planean jasotako hainbat ekintza baliogarri.
- Beste udalerrietako Ekintza Planak: Donostia, Legazpi, Arrasate, Tolosa,...

- Ordiziako partaidetza delegazioko "Ordizia Begira" programatik eratorritako ekarpenak

Azkenik eskuetan daukazun Ekintza Plan berri hau Herritarren Partehartze Foroan, eztabaidatu eta osatua izan da.

### *Herritarren partehartzea*

Prozesu guzti hau Herritarren partehartzearekin osatu ahal izan da. Honetarako Ordiziako Agenda 21eko Herritarren Partehartze Foroaren bilerak burutu dira. Foro hauetan parte hartzeko deia Ordiziako elkarte, gizarte eragile eta aurrez Foroan parte hartu dutenei pertsonalki luzatu zaie. Era berean herritar guztiei ireki zaizkio ateak Foroan parte hartu eta beraien ekarpenak jaso asmoz. Honetarako udalaren webgunea eta komunikabide ezberdinak erabili direlarik.

Partehartze prozesua 2009 eta 2010 urteetan zehar burutu da. Guztira 7 bilera egin dira eta labur-labur honako lan hauek burutu izan dira foroan:

- Diagnostikoaren aurkezpena
- Diagnostikoaren gaineko ekarpenak jaso eta eztabaida
- Hobetu beharreko ingurumen alderdien identifikazioa
- Ekintza-Planaren aurkezpena
- Ekintza-Planaren gaineko ekarpenak jaso eta eztaibaida
- Ekintza-Planaren priorizazioa

## 2020rako IKUSPEGIA ORDIZIAN

Iraunkortasuna, Ordiziako etorkizunaren lerro estrategikoak markatuko dituen erronka eta jomuga berrien oinarria izan behar da. Ondorengo lerroetan aurkezten diren erronkak (etorkizuneko ikuspegia), udal mailako hausnarketa baten ondorio dira eta 2020. urtea hartzen dute erreferentzizat. Ordurako ingurumenarekiko errespetatsuago den Ordizia bat eraikitzea bilatzen duten erronkek egituratzen dute Ekintza Plana.

### *ERRONKEN ZERRENDA*

1. Udalerriko natur, paisaia eta bioaniztasun ondarearen zaintza eta landa eremuaren kudeaketa egokia bermatzea.
2. Udalerriko mugikortasun beharrak iraunkortasun irizpideekin asetzea.
3. Uraren kudeaketa iraunkor eta eraginkorra burutzea.
4. Energia murrizpen, eraginkortasun energetiko eta energia iturri berriztagarrien erabilera oinarrituko den energia eredua lortzea.
5. Kontsumo arduetasua eginez hondakinen sorkuntzaren prebentzioa bultzatzea eta hondakinen kudeaketa egokia bideratzea.
6. Ingurumen kalitatearen kontrola hobetu eta jarduerak kudeatzeko sistemak sustatu.
7. Udaleko Ingurumen kudeaketa hobetu eta Erosketa Berdea bultzatu.
8. Iraunkortasun baloreetan herritarrak sentikortu, hezi, informatu eta ingurumen gaien kudeaketan parte har dezaten bermatzea.

## EKINTZA PLANA

Etorkizunera begira ezarritako ikuspegiak gidatuko du Ekintza Plana, ikuspegi orokorra osatzen duten erronka ezberdinek egituratuko dutelarik. Ekintza Plana Lerro Estrategiko/ Meta/ Programa eta Ekintzen zerrenda zehazturik ageri da egitura hau jarraituz:

**ERRONKA** (2020 urterako udalak arlo ezberdin bakoitzerako ezarritako erronkak dira)

**LERRO ESTRATEGIKOAK** (Ekintza Plana osatzen duten ekintzak egituratu eta tokiko garapen iraunkorra bideratuko duten helburuak dira)

**METAK** (Ekintza Planaren ezarpenaren ondorioz 2020 urterako lortu nahi diren helburu kuantitatiboak dira, adierazle bidez ebaluagarriak)

**PROGRAMAK** (Lerro estrategikoak aurrera eramateko zehazten diren helburu operatiboak dira. Garatu beharreko kudeaketa eta ekimen arlo nagusietan oinarritzen dira)

**Ekintzak** (Programak zehaztu eta garatzen dituen neurri, eginkizun eta proiektuak dira. Kudeaketaren oinarrizko unitateak dira, hauen betekizuna ebaluagarria izan behar da)

**Ekintzak: lehenetsitako ekintzak. Herritarren Partehartze Foroetan prioritarioki burutu beharreko ekintzatzat hartu direnak.**



## Ekintza-planaren oinarrizko ezaugarriak

Tokiko Ekintza-planek hainbat motatako ekintzak dituzte, lerro estrategiko edo ekintza-programa gisa planteatutako helburu jakin bat lortzeko bidean aurrera egiten laguntzen dutenak. Ekintza horiek maila hauetan sailka daitezke:

- **Sentsibilizazioa, parte-hartzea eta prestakuntza**

Iraunkortasunerako trebakuntza eta hezkuntzarekin, eta herritarren eta komunitate horretako hainbat eragileren parte-hartzea sustatzearekin lotutako jarduerak.

- **Araudia**

Arau hauek gehitzea edo aldatzea: lurraren erabilerak eta jarduerak arautzen dituztenak, ingurunearekiko inpaktuak mugatzen dituztenak, ingurumenaren kudeaketa hobetzen dutenak edo iraunkortasunerako prozesuak eta jarrerak bultzatzen dituztenak eta ingurumen-kostuen edo -abantailen barneratzen laguntzen dutenak.

- **Pizgarri ekonomikoak**

Herritarren eta enpresen aldetik iraunkortasunerantz zuzendutako prozesuak eta jarrerak bultzatzen dituzten zergak, diru-laguntzak, finantziario-lerroak edo beste tresna ekonomiko batzuk aldatzea, ingurumen-kostuak eta -abantailak barneratzen laguntzeko.

- **Ekipamenduak eta azpiegiturak**

Ekipamenduak erosteko edo azpiegiturak bideratzeko ekintzak.

- **Iraunkortasun-irizpideak integratzea**

Udal kudeaketarekin edo tokiko administrazioaren funtzionamenduarekin lotutako hainbat alderditan iraunkortasun-irizpideak kontuan hartzen dituzten ekintzak.

- **Azterketak eta planak**

Iraunkortasun-mailari buruzko arlo, prozesu edo arazo nagusiak hobeto ezagutzeko edo baloratzeko, edo Tokiko Ekintza-planak gauzatu ezin dituen ekintzak definitzeko aukera ematen duten azterketak egitea.

- **Kudeaketa**

Iraunkortasuna lortzen laguntzen duten hainbat ekintza, udal-kudeaketarekin lotuta daudenak, eta ingurumen-kontrola, tramitazioak, esku-hartzeen eskaera eta beste hainbat alderdi kontuan hartzen dituztenak.

## Lerro estrategikoak, Programak eta Ekintzak

ER 1. Bere natur eremuak, landa-ingurunea, paisaia anitzak eta orohar inguruko “bizia” ezagutu, babestu, kontserbatu eta zentzu handiz kudeatu eta probestuko duen Ordizia izan nahi dugu.

### LE 1. UDALERRIKO NATUR , PAISAIA ETA BIOANIZTASUN ONDAREAREN ZAINZA ETA LANDA EREMUAREN KUDEAKETA EGOKIA BERMATZEA

ADIERAZLEA	EGUNGO BALIOA	Meta(2020)
A.1. Lurzoru artifizializatua (%) (ISL 02(01))	%34 (2008)	Beharretan hazi
A.2. Hiriko parkeek, lorategiek eta berdeguneek betetzen duten lurzorua (pertsona bakoitzeko m <sup>2</sup> -ak)	32 m <sup>2</sup> /biztanle (2008)	mantendu
A.3. Udalerrian babes berezia duen azalera (%) (ISL: 02(12) )	% 4,37 (2008)	Igo (%15)
A.4. Landa informazio didaktikoa duten ibilbideak (km) (ISL: 02(13) )	17,4 km (2009)	mantendu

#### P 1.1. EKOLOGIA ETA PAISAIA ALDETIK INTERESGARRIAK DIREN TOKIAK ETA OSAGIAK EZAGUTU, BABESTU ETA BERRESKURATZEA.

1.1.1. Ordiziako eremuan aurkitzen diren natur elementuen azterketa bat burutu GIS kartografia programaren bitartez eta identifikatzen diren gune/elementu interesgarrienak babesteko neurriak hartzen joateko kudeaketa plana erredaktatu.

**1.1.2. Oianguko parkean babestu beharreko osagaien katalogoa egin eta berreskurapen/kontserbazio neurriak hartu.**

1.1.3. Murumendiko lurrak, Interes Berezik Gune bezela aztertu eta babestu daitezzen Itsasondoko eta Beasaingo udalekin bat egin.

1.1.4. Ibaiertzetako berezko landarediaren berreskurapen lanak burutu Ur Agentziarekin bat eginda (Oria ibaia).

1.1.5. Mariarats babestu

#### P 1.2. IBAI, BASO ETA LANDAZABALEKO BALIABIDEEN BABESA ETA MULTIFUNTZIONALITATEA KONTUTAN HARTUKO DUEN KUDEAKETA IRAUNKORRA

1.2.1. Herri bideen inbentarioa egin eta baso ustiapenerako pisten eta herri bideen erabilera eta mantenua erregulatuko duen ordenantza ezartzea aztertu.

1.2.2. Landare inbaditzaileen hedapenaren kontrola egitea (GFAak landare inbaditzaileen aurrean (Buddleia, Reynoutria, Cortaderia) ezarri duen plana).
1.2.3. Bertako produktuen salmenta bultzatzeko eta landazabaleko baliabideen ustiapenari eta ekoizpenari bultzada bat emateko kanpainak burutu (azoka bereziak,...).
<b>P 1.3. HIRI PARKE, GUNE BERDE ETA ESPAZIO IREKIEN GARAPENA ETA HOBEKUNTZA</b>
<b>1.3.1. Isolatutako gune berdeak bioaniztasunaren fluxua ahalbidetzen duten kanalen bidez lotu. Udalerriko gune berdeen jarraitasuna mantendu eta haien zatikatzea ekidin.</b>
1.3.2. Landa eremuko guneen eta orohar gune berdeen erabilpenak aniztu, funtzio ornamental hutsa izatetik aisialdi funtzioa izan dezaten bermatuz eta hauen erabilera arautuz (Adib: Mariaratzeko berdegunean)
<b>1.3.3. Udalerrian eginiko bidegorriaren obren ondorioz kendutako zuhaitzak ordezkatzuz eta itzal faltari irtenbide bat emateko bertako zuhaitz/zuhaixka espezieen landaketak egitea.</b>
1.3.4. Hiriko parke eta berdeguneetan bertako espezieen landaketak sustatzea.
<b>P 1.4. NATUR ONDAREA SOZIALKI BALIOZTATZEA</b>
1.4.1. Ordiziako natur ondarearen azterketa emaitzak herritarrei ezagutarazteko argitalpen eta kanpaina bultzatu.
1.4.2. Ibai eta errekaen balioetan herritarrak hezteko kanpainak egin: erreka garbiketak, ibaiertzeko landaredia ezagutzeko irtenaldiak,...

ER 2. Garraio pribatuaren mugimenduak ahal den heinean murriztu eta oinez, bizikletaz edo/eta garraio publikoan erraz eta arin mugituko den hiri eredu dinamiko eta osasuntsu batean bilakatu nahi dugu Ordizia.

## LE 2. UDALERRIKO MUGIKORTASUN BEHARRAK IRAUNKORTASUN

### IRIZPIDEEKIN ASE

<b>ADIERAZLEA</b>	<b>EGUNGO BALIOA</b>	<b>Meta(2020)</b>
<b>A.5. Garraio publikoz egiten diren lekualdaketak (%) (ISL 03(10))</b>	<b>%11 (2002)</b>	<b>%30</b>
<b>A.6. Bidegorri sarea (km 10.000 biztanleko) (ISL 04(05)):</b>	<b>0 km/10.000 bizt. (2009)</b>	<b>5 km/10.000 bizt</b>
<b>A.7. Zirkulazioaren intentsitatea oinarritzko bide sarean (ibilgailu eguneko) (ISL 99(03)):</b>	<b>2010ean datua lortzeko</b>	
<b>A.8. Aparkaleku defizit orokorra (%)</b>	<b>2010ean datua lortzeko</b>	
<b>A.9. Turismo kopurua (turismoak /1000 biztanleko)</b>	<b>2010ean datua lortzeko</b>	

#### P 2.1. MOTORRIK GABEKO GARRAIOBIDEEN SUSTAPENA

##### 2.1.1. Oinezkoentzako ibilbide sarea hobetu/egokitu.

2.1.2. Herriko gune ezberdinak lotuko dituen bidegorri sarea osatzen joan eta honen erabilera sustatzeko kanpainak burutu.

##### 2.1.3. Ikastetxeetan “Eskola-bidea” proiektua bultzatu eta lagundu.

##### 2.1.4. Bizikleta aparkalekuen kokapenaren egokiera aztertu eta behar denetan tokiz aldatu, gabeziak dauden guneeetan berriak jarriaz (estalkiak,...).

2.1.5. Turismo inprimaketan, feri ezberdinetako diptikoetan, komunikabide oharretan ,udaleko web orrian,... mugikortasun iraunkorraren inguruko erreferentzia egin.

2.1.6. Bizikleten alokairu sistema publikoa jarri (zerbitzu honetako zenbait bizikleta elektrikoak izan daitezke).

#### P 2.2. GARRAIO PUBLIKOAREN SUSTAPENA (GOIEKI-REN EKIMENAK LAGUNDUAZ)

##### 2.2.1. Garraio publiko zerbitzua hobetu (Goierriko Mugikortasun Plana, 2009).

2.2.2. Eskoletara doazen autobus zerbitzu ezberdinak optimizatu (Goieki)

2.2.3. Industri-guneetara (CAF, ESTANDA,...) jarri diren autobus lineen jarraipena

egin eta autobus zerbitzua beste lanleku batzuetara jarri daitekeen aztertu.
2.2.4. Feri egunetan (asteazkenak, ostegunak) garraio publikoaren zerbitzua areagotzea.
<b>P 2.3. AUTO PRIBATUAREN ERABILPEN ARDURATSUA</b>
2.3.1. Herrigunean TAO/OTA bidezko aparkalekuaren erregulazio sistemaren ezarpena aztertu.
2.3.2. Gutxiago kutsatzen duten ibilgailuak bultzatzeko neurri fiskalak ezartzea aztertu.
<b>P 2.4. UDAL ZERBITZUEN MUGIKORTASUN IRAUNKORRA</b>
2.4.1. Udal zerbitzuetan ibilgailu garbien erabilera areagotu (kotxe hibridoak, elektrikoak, ...) eta hauen energia eraginkortasunaren jarraipena burutu.
2.4.2. Zerbitzu publikoa eskeintzen duten enpresen ibilgailuetan (autobus, taxi,...) erregai garbiagoen erabilera sustatu.
<b>P 2.5. IRISGARRITASUN UNIBERTSALA BERMATZEA</b>
2.5.1. Irisgarritasun Planaren exekuzioarekin jarraitu: espaloi zabaltzeak, oinezkoen zeharbideak egokitzea (Oreja parkekoa,...)
2.5.2. Falta diren udal eraikin publikoak egokitu.
<b>P 2.6. UDAL PLANEAMENDUAN MUGIKORTASUN IRAUNKORRA BULTZATZEA</b>
<b>2.6.1. Oinezkoentzat egokitutako guneak eta 30 km/h-ko guneak jartzea aztertu, orohar trafikoa baretzeko neurriak hartuaz.</b>
2.6.2. San Bartolomeko aparkalekuaren erabilerari bultzada bat eman.
2.6.3. Aparkaleku berrien bideragarritasuna aztertu: Mailutz Industriegunean, Plazuela atzekaldean. Lurrazpiko aparkalekuak bultzatu: Barrena Parkean (bertan estaldura berdedun aparkalekuen bideragarritasuna aztertu), auzoetan (Poligonoan,...).
2.6.4. Etxebizitza berrietan, txirinduak gordetzeko guneak bultzatu.

ER 3. Ur baliabideen egoera ekologikoen zaintzan oinarrituz, herritar guztientzako ur garbi eta osasungarria eskuragarri jarriko duen eta jarduera ezberdinentzako beharrezko ura erabilgarri jarriko duen ur hornidura eta saneamendu sistema egokiak prestatu nahi dira Ordizian.

### LE 3. URAREN KUDEAKETA IRAUNKOR ETA ERAGINKORRA BURUTZEA

ADIERAZLEA	EGUNGO BALIOA	Meta(2020)
<b>A.10. Etxeko ur kontsumoa eguneko eta biztanleko (l/biz/egun) (ISL: 05(01))</b>	<b>143 litro/bizt/egun (2009)</b>	100 litro/bizt/egun
<b>A.11. Banaketa sareko galerak (%) (ISL 05(03))</b>	<b>%22,6 (2009)</b>	%10
<b>A.12. Udalerriko zenbat etxebizitza dauden hondakin urak garbitzeko sareari lotuta (%) (ISL: 08(08))</b>	<b>90% (2009)</b>	%100

#### P 3.1. URAREN KONTSUMOA MURRIZTEA ETA UR KUDEAKETA ERAGINKORTZEA

**3.1.1. Udal eraikinetan eta komun publikoetan ur aurrezpen sistema berriak jarri, honetarako plangintza konkretu bat landuz: iturrietan filtroak, pultsadoreak, karga erdiko zisternak,...**

**3.1.2. Lorategiak ureztatzeko eta kaleak garbitzeko euri ura edo errekaokoa erabiltzeko sistemak ezartzea aztertu.**

3.1.3. Igerilekuko urak beharrezkoa duten beraldatze maiztasuna aztertu eta ahal den heinenan murriztu.

3.1.4. Barrera eta Garagarza parkeko putzuak kentzea aztertu.

3.1.5. Ur hornidura sarearen GPS bidezko ur galeren txekioak ahalbidetuko dituen sistema telematikoa bultzatu.

3.1.6. Etxebizitzetan banakako kontagailuak jartzeko tramiteak bideratu Ur kontsortzioarekin.

3.1.7. Ur sare osoaren sektorekako plana eta behar dituen berrikuntzak jasoko dituen plangintza diseinatu.

3.1.8. Kontsumoaren araberako tarifa sistema jartzea aztertu.

3.1.9. Kiroldegian dutxa kolektiboak bultzatu

**3.1.10. Uraren inguruko sentsibilizazio kanpainak egin.**

#### P 3.2. HONDAKIN UREN SANEAMENDUA BURUTU

3.2.1. Saneamendu sarea osatzeko falta diren ekimenak burutu.
---

3.2.2. Baserrietako hondakin uren bilketak (fosa septikoak) inbentariatu.
---

ER 4. Energiaren erabilera zentzudun eta eraginkor bat egin eta energia iturri berriztagarrien erabilera areagotuko duen bizimodu eta jarduera ereduak jarraituko dituen Ordizia bat izatea nahiko genuke.

**LE 4. ENERGIA MURRIZPEN, ERAGINKORTASUN ENERGETIKO ETA ENERGIA ITURRI BERRIZTAGARRIEN ERABILERAN OINARRITUKO DEN ENERGIA EREDUA LORTZEA**

<b>ADIERAZLEA</b>	<b>EGUNGO BALIOA</b>	<b>Meta(2020)</b>
<b>A.13. Elektrizitate eta gas natural kontsumoa udalerrian (petrolio baliokide tona/urte) (ISL:06(02) )</b>	<b>7127,4 tep/urte (2007)</b>	<b>mantentzea</b>
<b>A.14. Energia berriztagarrien ekoizpena (kwh/biztanle) (ISL: 06(10) )</b>	<b>%0.01 kwh/bizt (2007)</b>	<b>%2 kwh/bizt</b>

<b>P 4.1. ENERGIA EREDU BERRIA ETXEBIZITZAN</b>
4.1.1. Energia zentralizatuko berokuntza sistemak ezartzen jarraitu hiri garapen berrietan.
4.1.2. Egoitzen eraikuntzan erizpide bioklimatiko eta energetikoak barneratzea saritzea aztertu: eguzki plakak, geotermia, pelet bidezko galdarak, isolamendu sistemak,....
<b>P 4.2. ENERGIA EREDU BERRIA ADMINISTRAZIOAN/UDALEAN</b>
4.2.1. Modu jarraian monitorizatuko duen energia kontsumo kontrola ezarri daitekeen aztertu udal eraikinetan ( <i>Ener in Town</i> programa).
4.2.2. EVEk eskeintzen duen Asistentzia Integrala deritzon programaren bitartez udal eraikin eta argiteria publikoaren gaineko azterketa energetikoa bideratu.
<b>4.2.3. Argiteria publikoan, luminariak energia eraginkortasun maila altuagoa duten luminariengatik ordezkatzeko jarraitu (LED,...), era berean argi kutsadura ekidinez.</b>
4.2.4. Eraikin publikoetan elektrizitatea, fuel-olioa eta gas-olioa, gas naturalagatik aldatzeko ohiturarekin jarraitu.
4.2.5. Delikatuz-eko eraikinaren energia eraginkortasuna hobetzeko argiteria sistema aldatu.
<b>4.2.6. Udal eraikinetan energia berriztagarriko sistemak/ kogenerazio sistemak ezartzeko pausuak eman (Igerilekua).</b>



4.2.7. Plazan eguzki plakak jarztea aztertu.

ER 5. Baliabideen ekoizpen eta kontsumo zuhur eta eraginkorrak egiteaz gain, ondorioz sortzen diren hondakinen sorrera murriztu eta berrerabilpen zein birziklapen mailak areagotuko dituen herri eredia bultzatu nahi dugu Ordizian.

**LE 5. KONTSUMO ARDURATSUA BULTZATUZ HONDAKINEN SORKUNTZAREN PREBENTZIOA BULTZATZEA ETA HONDAKINEN KUDEAKETA EGOKIA BIDERATZEA**

<b>ADIERAZLEA</b>	<b>EGUNGO BALIOA</b>	<b>Meta(2020)</b>
<b>A.15. Hiri hondakin sorreraren indizea (kg/biztanle/egun) (ISL: 7(01))</b>	<b>1,33 kg/bizt./egun(2008)</b>	<b>1,20 kg/bizt/egun</b>
<b>A.16. Hiri hondakinen birziklapen tasa (%) (ISL: 7(02) )</b>	<b>%27,9 (2008)</b>	<b>% 60</b>

**P 5.1. HERRITARREN ARTEAN KONTSUMO ARDURATSUA BULTZATU, PREBENTZIO ETA BERRERABILPEN MAILAKO NEURRIAK HARTUZ**

**5.1.1. Herriko dendari elkarte eta merkatariekin batera behin eta berriz erabiltzeko poltsa berrerabilgarrien inguruko kanpaina egin, plastikozko poltsak ordezkatzeko joateko.**

5.1.2. Haurren jostailu eta trasteen truketzea bultzatu haurtzaindegi, ludoteka eta Gaztelekuetan.

5.1.3. Antolatzen diren udal eta herri bazkarietan, festetan,...hondakinen kudeaketa iraunkorra bideratu (edalontzi berrerabilgarriak, etab.) SASIETAren bitartez.

**P 5.2. HONDAKINEN BIRZIKLAPENA SUSTATU**

**5.2.1. Hondakin bilketaren inguruko informazioa hobetu eta edukiontzien kokapenaren egokitasuna neurtu.**

5.2.2. Udalerriko elkarteetan sortzen den hondakin bolumena handia birzikla dadin kanpaina bat martxan jarri, bereizketa ontzien banaketarekin.

**P 5.3. HONDAKINEN KUDEAKETAREN UDAL KONTROLA**

**5.3.1. Paper bidezko udala eta herritarren arteko komunikazioa murrizteko komunikazio bide berriak landu: mezu elektronikoak, web orria,... eta paper berziklatuaren erabilera bultzatu.**

ER 6. Herritar guztien osasunaren zaintza bermatuko duen ingurumen kalitatearen babesa eta udalerriko jarduerak eragiten dituzten kutsadura eta arriskuen gaineko kontrol zorrotzerako behar hainbat baliabide eta kudeaketa programa eraginkor ezarriko dituen udala egituratu nahi da Ordizian.

**LE 6. INGURUMENAREN KALITATEAREN KONTROLA HOBETU eta JARDUERAK KUDEATZEKO SISTEMAK SUSTATU**

<b>ADIERAZLEA</b>	<b>EGUNGO BALIOA</b>	<b>Meta(2020)</b>
<b>A.17. Ingurumen kudeaketako sistemen (ISO 14001, EMAS, Ekoscan, iraunkortasunaren txostenak) ezarpen maila enpresetan (ziurtatutako sistemen kopurua) (ISL: 9(01) )</b>	<b>1 enpresa (2008)</b>	<b>enpresen %25</b>

**P 6.1. KALITATE AKUSTIKOAREN UDAL KONTROLA BURUTU**

**6.1.1. Zarata Azterketa berri bat egin, iturriak eta neurri zuzentzaile posibleak zehaztuz.**

6.1.2. Herritarrek zaratagatik izaten dituzten kexen jarraipena egin.

**6.1.3. Ibilgailu, kale garbitzaile, zaborbiltzaile eta orohar motorrek sorturiko zarataren kontrola eta zaintza handiagotu.**

**6.1.4. N-1eko trafikoaren zarata eta trenak sortzen duen zarataren eragina murrizteko pantaila akustikoak jartzea ahalbideratu.**

**P 6.2. UDALERRIKO JARDUEREN KONTROLA HOBETZEA**

**6.2.1. Udalerriko jarduerak sektoreka inbentariatu eta jardueren datu base bat sortu, horretarako beharrezko baliabideak ezarriz.**

6.2.2. Jarduera industrialean egiten duten ingurumen kudeaketa hobetzearren Ingurumen Kudeaketa Sistemak ezar ditzaten lan egin eta hauek aurrera eramateko dauden formazio aukera eta dirulaguntzen gainean informatu GOIEKlren bitartez.

ER 7. Ingurumenaren zaintzan arduratsua izanik, udal kudeaketan iraunkortasun irizpideak barneratu eta eredugarriak diren neurriak hartzen dituen udala nahi dugu Ordiziarako.

**LE 7. UDALEKO INGURUMEN KUDEAKETA HOBETU ETA EROSKETA BERDEA BULTZATZEA**

<b>ADIERAZLEA</b>	<b>EGUNGO BALIOA</b>	<b>Meta(2015)</b>
<b>A.18. Ingurumen kudeaketako sistemen (ISO 14001, EMAS, Ekoscan, iraunkortasunaren txostenak) ezarpen maila erakunde publikoetan (ziurtatutako sistemen kopurua) (ISL: 9(02) )</b>	<b>0 erakunde (2008)</b>	<b>Erakunde publikoen %75</b>

<b>P 7.1. KONTRATAZIO ETA EROSKETA PUBLIKOAN IRAUNKORTASUN IRIZPIDEAK TXERTATZEA</b>
<b>7.1.1. Zerbitzu ezberdinak kontratatzerakoan iraunkortasun irizpideak kontutan hartuko dituen prozedimendu estandarizatuak landu zerbitzu bakoitzeko (Erosketa departamendutik): EROSKETA PUBLIKO BERDEAren jarraibide gixa.</b>
<b>P 7.2. INGURUMEN IRIZPIDEAK TXERTATU UDAL KUDEAKETAN</b>
<b>7.2.1. Udal instalakuntza eta zerbitzu ezberdinetan Ingurumen Kudeaketa Sistemak ezartzea aztertu: udala, kiroldegia,...</b>
7.2.2. Udal Adierazleen kalkulua sistemizatu eta udal kontrola burutu (MUGI21 programa), horretarako beharrezko baliabideak erraztuz.
7.2.3. Udalak urtean egiten duen Ingurumen gastua kalkulatu.
<b>7.2.4. Lurzoruaren antolamendurako eta udal kudeaketako hainbat alorren (natur balioak, argiteriaren kontsumoa, ur kontsumoak,...) kontrol, jarraipen eta plangintza hobetzeko GIS programa ezartzeko pausuak eman: programaren instalazioa, programaren kudeatzailearen kontratazioa, udal teknikari ezberdinen formazio saioak,...</b>
<b>7.2.5. Ingurumen Teknikari postua atera udalean.</b>

ER 8. Iraunkortasun eta solidaritatearen baloreetan sentiberatze eta kontzientziazio maila altua izanik, udalarekin bat eginda iraunkortasunean oinarritutako etorkizun bat elkarlanean eraikitzeko prest dauden herritarrez osatutako Ordizia nahi dugu.

**LE 8. IRAUNKORTASUN BALOREETAN HERRITARRA SENTIKORTU, HEZI, INFORMATU ETA INGURUMEN GAIEN KUDEAKETAN PARTE HAR DEZATEN BERMATZEA**

<b>ADIERAZLEA</b>	<b>EGUNGO BALIOA</b>	<b>Meta(2020)</b>
<b>A.19. Eskola Agenda 21ean parte hartzen duten ikasleen kopurua:</b>	<b>1.364 ikasle</b>	<b>DBHko ikasle guztiak</b>
<b>A.20. Herritarrek parte hartzeko bilerak (bilera kopurua) (ISL: 16(04)):</b>	<b>2,5 (2008)</b>	<b>4</b>
<b>A.21. Herritarrek parte hartzeko bileretara bertaratuak (parte-hartzaile kopurua (ISL:6(03))) (erakunde kopurua):</b>	<b>42 (2008)</b>	<b>80</b>
<b>A.22. Kalkulaturiko tokiko iraunkortasun adierazleen kopurua</b>	<b>24 adierazle (2008)</b>	<b>60 adierazle</b>

P 8.1. GARAPEN IRAUNKORRARI eta TOKIKO AGENDA 21ARI BURUZKO POLITIKAN UDAL-EKINTZA SUSTATZEA ETA KOORDINAZIOA HOBETZEA.

8.1.1. Tokiko Agenda 21ean lantzen diren gaien garapen egokirako egitura egonkorrak sortu eta beharrezko baliabideak eskeini.

8.1.2. Udal arduradun eta teknikari ezberdinei Tokiko Agenda 21ari buruzko informazioa errazteko komunikazio bideak landu.

P 8.2. HERRITARRAK SENTSIBILIZATZEA ETA HEZTEA HERRI IRAUNKORTASUNA BERMATU ETA INGURUMENA GEHIAGO ERRESPETATZEN DUTEN OHITURAK SUSTATZEKO.

8.2.1. Urtean zehar baliabideen kontsumo eta erabilera zentzudunean, baliabideen aurrezpenean, mugikortasun iraunkorraren inguruko sentsibilizazio kanpainak antolatzea: Mugikortasun eguna, Aste Berdea, Argazki raliak, Erakusketak, Agenda 21eko egutegia, hitzaldiak, zuhaitz eguna,....

**8.2.2. Herriko elkarteekin lan egin, herritarrak iraunkortasunari buruzko gaietan sentsibilizatzeko.**

8.2.3. Guraso, Irakasle eta Ikasleen artean hezkuntza bateratuko programak antolatu

ingurumen gaiak landuz: Eskola Agenda 21,....
<b>8.2.4. Udal teknikariei eta jarduera ezberdinetako langilegoari zuzenduriko hezkuntza-programak prestatu GOIEKren bitartez: Ingurumen Kudeaketa, Eraikuntza Kode Berria, Erosketa berdea, Ordenantza berriak, Ingurumen kudeaketa, energia eraginkortasuna, natur balioen eta biodibertsitatearen kontserbazioa,...</b>
P 8.3. UDALEKO INTERESEKO GAIEN HEDAPENERAKO UDALAREN ETA HERRITARREN ARTEKO KOMUNIKAZIOA HOBETZEA.
8.3.1. Tokiko Agenda 21en baitan egindako ekintzei buruz eta udalerriko iraunkortasun egoerari buruz aldizka informazioa zabaltzea, horretarako Ingurumen Adierazleen Sistema berrikusiz eta argitaratuz.
8.3.2. Herritarren proposamen/ekarpen berriak jaso eta herritarrari informazioa helarazteko komunikazio bide berritzaileak prestatu: web orria, mezu elektronikoak,...
P 8.4. HERRITARREN INPLIKAZIOA BULTZATZEA AGENDA 21AREN GARAPENEAN ETA PARTAIDETZARAKO MEKANISMO EGONKORRAK EZARTZEA ETA FINKATZEA.
<b>8.4.1. Partehartze mailan beste udalerrietan egon daitezkeen “praktika onak” aztertu eta Ordiziako partehartze eredia definitu, Partaidetza delegazioarekin bat eginda.</b>
<b>8.4.2. Udalerriko proiektu zehatzetan herritarra inplika dadin partehartze tailerrak/programak prestatu (auzolana): “Eskolara Oinez” programa, Oinezkoen puntu beltzen identifikazioa, erabilera publikoa duten gune berdeen diseinu (Oiangu), hauen kontserbazio eta mantenimendurako boluntarioria, baratza komunitarioen sorkuntza,...</b>